DIARIO DE SESIONES

DEL

PARLAMENTO DE NAVARRA

X Legislatura | Pamplona, 30 de marzo de 2021 | NÚM. 15

TRANSCRIPCIÓN LITERAL

COMISIÓN DE UNIVERSIDAD, INNOVACIÓN Y TRANSFORMACIÓN DIGITAL

PRESIDENCIA DEL ILMO. SR. D. MIKEL ASIAIN TORRES

SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 30 DE MARZO DE 2021

ORDEN DEL DÍA

— Debate y votación de la moción por la que se insta al Gobierno de Navarra y a la Universidad Pública de Navarra a trabajar conjuntamente por la creación de una "Mención en dialectos navarros del euskara" en el Grado de Magisterio en Educación Primaria, presentada por el Ilmo. Sr. D. Iñaki Iriarte López.

(Comisión transcrita por la UTE Naturalvox-MondragonLingua)

(Comienza la sesión a las 15 horas y 22 minutos).

Debate y votación de la moción por la que se insta al Gobierno de Navarra y a la Universidad Pública de Navarra a trabajar conjuntamente por la creación de una "Mención en dialectos navarros del euskara" en el Grado de Magisterio en Educación Primaria, presentada por el Ilmo. Sr. D. Iñaki Iriarte López.

SR. PRESIDENTE (Sr. Asiain Torres): Arratsalde on, ongi etorri. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordearen gaurko saioari hasiera emango diogu. Gaurko honetan puntu bakarra dugu gai-zerrendan. Hain zuzen ere, mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa premiatzen dira batera lan egin dezaten Lehen Hezkuntzako Irakasletza graduan "Nafarroako euskalkien aipamena" izenekoa sortzearen alde. Navarra Suma talde parlamentarioko Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu zuen mozioa. Beraz, Iñaki Iriarte jauna, zurea da hitza hamabost minutuz.

[Buenas tardes, bienvenidos. Damos comienzo a la sesión de hoy de la Comisión de Universidad, Innovación y Transformación Digital. Hoy solo tenemos un punto en el orden del día. En concreto, el debate y votación de la moción por la que se insta al Gobierno de Navarra y a la Universidad Pública de Navarra a trabajar conjuntamente por la creación de una "Mención en dialectos navarros del euskara". La moción fue presentada por el señor Iñaki Iriarte López, del grupo parlamentario Navarra Suma. Por lo tanto, señor Iñaki, tiene la palabra durante quince minutos].

SR. IRIARTE LÓPEZ: Esker anitz, presidente jauna, eta arratsalde on mundu guztiari. Izan ere, ikusten ahal izan duzuenez, aurkeztu egin dugu mozio hau eskatzeko aipamen bat sortzea Magisteritza Graduan eta aipamena izatea Nafarroako euskalkien gainean. Aipamenak badira espezialitate ttipiak graduen barnean sortzen ahal direnak, hogeita hamar kreditukoak dira bertzeak bertze.

[Muchas gracias, señor Presidente, y buenas tardes a todos. Como han podido ver, hemos presentado esta moción para solicitar que se cree una mención en el Grado de Magisterio y que esa mención verse sobre los dialectos *de Navarra. Las menciones son pequeñas especializaciones que se pueden crear dentro de los grados y tienen unos treinta créditos de media].*

Baina aldez aurretik adierazten dut ez garela ixten bertze aukera batzuen aitzinean, posible litzatekeela hemen Alderdi Sozialistak aurkezturiko proposamenaren barnean erraten den moduan, aipamen baten lekuan sortzea hautazko asignatura bat edo bi. Guretzat, azken finean, proposamen honen xedea da euskalkien irakaskuntza sartzea Nafarroako sistema unibertsitarioan, bertzerik ez. Zergatik? Zertarako? Zioen azalpenean azaltzen dut hori gutti goiti beheiti zer den. Ez bakarrik euskalkietan, oro har, dialektoetan, zer dira dialektoak eta zer paper jokatzen duten dialektoek hizkuntz baten transmisioan. Dialektoak ez dira hizkuntza bat gaizki mintzatzeko formak. Dira tokian tokiko barianteak. Hizkuntza ororen historian gehienetan sortzen da dialekto bat arau bihurtzen dena, eta horrek ekartzen ohi du gainerako barianteak albo batera uztea.

[Quiero expresar de antemano que no nos cerramos a otras opciones, que sería posible como se indica en la propuesta presentada por el Partido Socialista crear una o dos asignaturas optativas en lugar de una mención. Para nosotros, al fin y al cabo, el objeto de esta propuesta es introducir la enseñanza de los dialectos en el sistema universitario navarro. Nada más. ¿Por qué? ¿Para qué? En la exposición de motivos explico qué es eso detalladamente. No solo en los dialectos*, sino en los dialectos en general, qué son los dialectos y qué papel desempeñan en la transmisión de un idioma. Los dialectos no son formas de hablar mal un idioma. Son variantes locales. En la historia, en la historia de toda lengua la mayoría de las veces surge un dialecto que se convierte en norma, lo que supone el abandono del resto de las variantes].*

Ez naiz sartuko den *debatitzera* zergatik gertatzen den hori, klase menperatzaileen eragina den, hiztun batzuk *marjinatzeko* balio duen ala, alderantziz, hiztunen arteko komunikazioa errazten duen. Motiboak askotarikoak dira eta, erran moduan, ez naiz sartuko hori azaltzera. Kontua da dialektoak existitzen direla eta existitzen direla forma normalizatuak. Eta iraganean bazegoen bi forma hauek modu baztergarri gisa pentsatzeko ohitura edo forma. Baina iruditzen zait gaur normaltasun osoz pentsa dezakegula posiblea dela ezagutzea hizkuntz baten forma normalizatua eta aldi berean hizkuntz baten forma dialektala, eta, beraz, bi formak guztiz bateragarriak direla.

[No entraré a debatir por qué ocurre eso, si es por la clase dominante, si sirve para marginar a algunos hablantes o si, por el contrario, facilita la comunicación entre los hablantes. Los motivos son muy diversos y, como he dicho, no voy a entrar a explicar eso. La cuestión es que existen los dialectos y que existen las formas normalizadas. Y en el pasado se acostumbraba a concebir estas dos formas como excluyentes entre sí. Pero me parece que hoy cabe la posibilidad de pensar con toda normalidad que es posible conocer la forma normalizada de un idioma y al mismo tiempo la forma dialectal de un idioma, y, por lo tanto, que ambas formas son compatibles].

Ez zait eskapatzen euskararen historian barne-haustura dialektalak jokatu duela paper negatibo bat, zeren eta zailtzen baitzuen hiztunen arteko elkar ulerkuntza edo. Baina aldi berean iruditzen zait hemen dagoen euskaldun orok *errekonozituko* duela gaur egun egoera hori neurri handi batean gainditu dela, errate baterako, Bizkaian bizkaiera aisetasun osoz erabiltzen dela. Diputazioak erabiltzen du, aditzen da bertako komunikabideetan. Nik badakit ikastola batzuetan ere Bizkaieraz irakasten dela, eta admitituta dago. Iparraldean, bertze horrenbertze gertatzen da bertako nafar-lapurteraren forma batekin, forma literario batekin. Elizan, sermoiak eta ikastolek erabiltzen dute bertako euskararen forma normalizatu hori, eta horrek ez du ekiditen hiztunek ere euskara batua ikastea.

[No se me escapa que la ruptura dialectal interna en la historia del euskera ha jugado un papel negativo, ya que dificultaba el entendimiento entre los hablantes. Pero al mismo tiempo me parece que todos los vascohablantes aquí presentes reconocerán que hoy en día se ha superado esa situación en gran medida y que, por ejemplo, en Bizkaia se utiliza el vizcaíno con total tranquilidad. Lo utiliza la Diputación, se escucha en los medios de comunicación locales. Sé que en algunas ikastolas *también se enseña en vizcaíno y está admitido. En Iparralde ocurre lo mismo con una forma del navarro-labortano, con una*

forma literaria. Lo utilizan en los sermones de la Iglesia y las ikastolas utilizan esta forma normalizada del euskera local, lo que no evita que los hablantes aprendan también euskera batua*].*

Gauzak honelaz, azpimarkatu nahi nuke mozio hau ez doala neholaz ere euskara batuaren kontra. Ni konbentzituta nago euskara batua erabilgarria dela, fabore itzela egin diola euskarari eta ongi dagoela euskara batuaz irakastea eta sortzen diren euskaldun orok forma normalizatu hori menperatzea. Baina horrezaz gain, pentsatzen dut euskalkien ezagutzeak biziki laguntzen duela hizkuntzaren osasunari. Nola? Hasteko, bistakoa da, posibilitatzen duela belaunaldien arteko elkar ulerkuntza. Errazagoa egiten du aitatxi batek ulertzea bilobak erraten duena. Horrezaz gain, euskalkiak ezagutzeak errazten du, erran genezake, hurbiltze-erabilpena. Ohitu gara pentsatzera hurbiltze-kontsumoan. Existitzen da, halaber, hizkuntzen hurbiltze-erabilpen bat, eta horrek balio du indartzeko hiztunen arteko lokarriak, eta, beraz, errazagoa egiten du hiztun batek bere hizkuntzara jotzea sentitzen duenean errotuago dagoela bere komunitatearen barnean. Eta gauzak honela, zinez konbentziturik nago euskalkien irakaskuntzak balioko duela hizkuntza indartzeko.

[En este sentido, me gustaría destacar que esta moción no va en contra del euskera batua. Estoy convencido de que el euskera batua es útil, que ha hecho un gran favor al euskera y que está bien enseñar en euskera batua y que todos los vascohablantes que surjan dominen esa forma normalizada. Asimismo, considero que el conocimiento de los dialectos contribuye mucho a la salud del idioma. ¿Cómo? En primer lugar, es evidente que posibilita el entendimiento intergeneracional. Hace más fácil que un abuelo entienda lo que dice su nieto. Además, podríamos decir que el conocimiento de los dialectos facilita el uso de cercanía. Nos hemos acostumbrado a pensar en el consumo de cercanía. Existe también un uso de cercanía de las lenguas que sirve para reforzar los lazos entre los hablantes, por lo que hace más fácil que un hablante recurra a su idioma cuando siente que está más arraigado dentro de su comunidad. Y así las cosas, estoy convencido de que la enseñanza de los dialectos servirá para fortalecer la lengua].

Alderdi Sozialistak aurkeztu du emendakin bat, eta aldez aurretik erran nahi dizuet admitituko dugula eta, beraz, aldeko botoa emanen dugula. Ez da xeheki guk eskatzen genuena. Bai, *admitizen* dut eztabaidatzea dagoela zein punturaino *mentzio* bat edo aipamen bat sortzea gehiegi litzatekeen, nolakoa litzatekeen mekanismoa… Nik pentsatzen dut aski edukina daukagula aipamen unibertsitario bat sortzeko. Dialektoak ez dira neholaz ere munta tipiko formak izan euskararen historian, alderantziz forma osoa izan dute euskara batua sortu artio 1968an. Ordura arte dena egin zen euskalkitan. Egia da, eta zioen azalpenean berean erraten dut, ia-ia idazle bakoitzak sortzen zuela bere forma normalizatua, baina, haatik, eta Nafarroan, gehiago Gipuzkoan eta gehiago Bizkaian, idazten zen euskalkitan. Erraten nintzen hori, Alderdi Sozialistak aurkezten duena ez dela xeheki guk proposatzen duguna, baina gure xedea da, lehen erran moduan, euskalkien irakaskuntza sartzea sistema unibertsitarioan eta, batez ere, mozio hau aitzin atera dadila. Mozioa atera dadila eta posiblea izatea, ahalez, gehiegizko eztabaidarik gabe. Ez dakit posiblea izanen den aho batez ateratzea, baina guttienez ez dakit, ohiturik gaude eztabaidatzera hizkuntz-politiken gainean, eta okasio honetan eramaten ahal izatea hau bezalako proposamen bat bertze terreno batera. Eta bertzerik ez. Esker mila.

[El Partido Socialista ha presentado una enmienda, y quiero decirles de antemano que la admitiremos y que, por lo tanto, votaremos a favor. No es exactamente lo que nosotros pedíamos. Sí, admito que hay que debatir hasta qué punto sería demasiado crear una referencia o una mención, cómo sería el mecanismo. Yo creo que tenemos suficiente contenido para crear una mención universitaria. No es que los dialectos hayan tenido poca importancia en la historia del euskera, al contrario, hasta la creación del euskera batua *en 1968 eran formas completas. Hasta ese momento todo se hacía con los dialectos. Es cierto, y lo he indicado en la propia exposición de motivos, que casi cada escritor creaba su forma normalizada, pero, sin embargo, y en Navarra, más en Gipuzkoa y más en Bizkaia, se escribía en* dialectos*. Decía eso, que lo que presenta el Partido Socialista no es exactamente lo que nosotros proponemos, pero nuestro objetivo es, como se ha dicho anteriormente, introducir la enseñanza de los dialectos en el sistema universitario y, sobre todo, que se apruebe esta moción. Que se apruebe esta moción, a ser posible, sin demasiado debate. No sé si será posible aprobarla por unanimidad, pero por lo menos, no sé, estamos acostumbrados a debatir sobre políticas lingüísticas, y en esta ocasión podemos llevar una propuesta como esta a otro terreno. Nada más. Muchas gracias].*

SR. PRESIDENTE (Sr. Asiain Torres): Mila esker, zuri, Iriarte jauna. Berak esan du onartuko zuela Alderdi Sozialistak aurkeztutako zuzenketa, baina, hala eta guztiz ere, nik galdetu behar nuen ea talderen bat horren kontra jarrera hartzen zuen edo ez. Beraz, onartua dago. Eta Lecumberri jauna, zure zuzenketa defendatzeko, hamar minutuz duzu hitza.

[Gracias a usted, señor Iriarte. Él ha dicho que aceptaría la enmienda presentada por el Partido Socialista, pero, a pesar de todo, yo tenía que preguntar si algún grupo se posicionaba en contra de eso o no. Por lo tanto, se admite. Señor Lecumberri, tiene la palabra durante diez minutos para defender su enmienda].

SR. LECUMBERRI URABAYEN: Pues muy bien. Muchas gracias, buenas tardes a todos. *Arratsalde on.* Brevemente. En principio, la posición del Partido Socialista con respecto a la moción que ustedes presentan es, digamos, basada en dos principios. El primero de ellos, la defensa del euskera como idioma, como nuestro idioma, la promoción y defensa del euskera en Navarra, como lengua propia, y la importancia que nosotros le damos y que creemos que tenemos desde una visión, siempre y así lo hemos dicho, desde una visión de no politización del euskera, ni de la utilización partidista o con fines políticos, de algo que creemos que es un patrimonio de todos los navarros. Y el segundo principio, que también nos parece importante, dado el contenido de la moción que ustedes presentan es el de la autonomía universitaria. Entendemos que ese es un principio básico y que nosotros respetamos, aunque no por ello dejamos de entender que tenemos capacidad de instar, de solicitar, de promover dentro de esa propia autonomía tanto en contenidos como en otras cuestiones.

Entrando un poco más allá en lo que sería su moción, nosotros hemos entendido y así lo hemos visto hablando con personas que pertenecen al mundo universitario y que tienen conocimiento en estas cuestiones, que una mención era quizás excesivo de entrada. Otra cosa es que la propia demanda, como ocurre con otros estudios o con otras asignaturas, nos llevará a ello. Pero en principio parecía excesivo, incluso técnicamente con cierta complejidad, puesto que el itinerario curricular de la carrera ya está hecho y hay que poner de acuerdo con otras universidades,

puesto que estamos dentro de un sistema universitario. Y como digo, tendría ciertas complejidades, no insalvables, pero sí que a priori excesivas a la vista de incluso las dudas, de hasta qué punto esto puede tener o no solicitud por parte de los estudiantes.

Pero sí que, por otro lado, veíamos nosotros que, dentro de esa defensa del euskera, el hacer una defensa de esos dialectos, aunque ustedes que son desde luego más expertos en esta materia que sin ninguna duda, ustedes mismos creo que definen la complejidad de saber qué es un dialecto, qué es un habla como ocurre con otros muchos idiomas. Me recordaba hablando de este tema, por ejemplo, una persona me recordaba como lo que se entendió como dialectos del catalán, el balear y el valenciano, han acabado siendo idiomas, y no solo idiomas, sino además idiomas defendidos unánimemente y popularmente por todas por todas las fuerzas, tanto de baleares como de la comunidad valenciana y socialmente con una implantación elevadísima. Por tanto, entre dialectos, idiomas y hablas, muchas veces depende de la forma de verlo, pero en todo caso sí que nos parecía que establecer unos estudios en los que se pueda hacer uso de estos idiomas y de su historia y de su implantación y de sus distintas variantes, ya digo, casi como proyecto piloto pues podría ser interesante.

Y en esa línea hemos planteado una enmienda de sustitución, como desde una asignatura optativa cuatrimestral, como son de tres créditos, incluso ampliable a la vista de la demanda, a una segunda de otros tres créditos, pero sin un compromiso inicial, porque esto para los propios alumnos pues les puede traer complicaciones si ya desde el principio tienen que entrar en un compromiso de seis créditos, y siempre es mejor probar con tres y si se ve que hay demanda, se podría hablar de otros tres créditos, etcétera, etcétera. Y esa sería un poco la idea. Yo me uno al planteamiento de que, sobre estas bases, si somos todos capaces de ponernos de acuerdo, el Partido Socialista no va a poner ninguna pega en hacer una modificación y el que pueda servir para que nos enfrentamos en una cuestión en la que, como son los dialectos del euskera navarros, los tres, cuatro, cinco dialectos que podamos tener, que merezca la pena y que sirva para sentar unas bases entre todos nosotros. Por nuestra parte no va a haber ningún problema, sino todo lo contrario, en modificar la propia enmienda que nosotros hemos puesto nada mas.

SR. PRESIDENTE (Sr. Asiain Torres): Eskerrik asko, Lecumberri jauna. Nortzuk egongo dira alde? Nortzuk kontra? Beraz, Solana anderea, Geroa Bai taldearen izenean, zurea da hitza hamar minutuz.

> *[Gracias, señor Lecumberri. ¿Quiénes estarán a favor? ¿Quiénes se oponen? Por lo tanto, señora Solana, dispone de la palabra durante diez minutos en nombre del grupo Geroa Bai].*

SRA. SOLANA ARANA: Eskerrik asko, presidente jauna. Badira gauza ezberdin, askotarikoak irten direnak gaurko debate honetan, eta baita ere berezia eta hasiera-hasieratikan proposatu egin den proposamenean ere bai. Badira alde ezberdinak eta denek ere badute garrantzia eta interesa. Hori, ez diot interesik kenduko ekarritako proposamenari. Baino ez dut ulertzen ongi zer den zehazki nahi duzuna. Ez dakit nafar euskalkien inguruko aipamen bat sortzea den, nafar euskalkietako batean, bietan, zenbatetan… *inpartituko* den aipamen bat sortzea den. Zertaz ari garen ongi ez dakit. Erronkariera ez, zeren ja azken hiztuna hil zen ez dakit noiz. Horrek ez dio kentzen ez baliorik, ez izaerarik eta ez deus ez igual irakasteko edo horren inguruan aritzeko edo jakiteko behintzat izan, izan zela.

[Muchas gracias, señor Presidente. En el debate de hoy han aflorado cuestiones muy variadas y también especiales, también desde el principio de la propuesta realizada. Hay cuestiones diferentes y todas ellas tienen importancia e interés. No le voy a quitar interés a la propuesta realizada. Pero no entiendo bien qué quiere decir exactamente. No sé si se trata de crear una mención en dialectos navarros, si se trata de crear una mención que se imparta en un, dos o varios dialectos navarros. El roncalés no, porque el último hablante falleció hace no sé cuánto tiempo. Eso no le resta valor, ni carácter, ni nada para enseñarlo o para saber que por lo menos existir, existió].

Ez dakit zehazki zein den gaia. Orduan, guretzako hemen gauza ezberdin elkartzen dira. Batetik bada proposatzea sartzea aipamen bat edo sortzea aipamen bat Hezkuntza Graduan. Hori bat izan daiteke. Ez dugu ikusten ez ongi ez gaizki, eta ere bai iruditzen zaigu bitxia sartzea diseinu horretan edo gradu baten diseinuan edo zer irakasgai sartu behar den berez derrigorrezkoa ez den hezkuntza maila batean eta beste instituzio eta akademiko bati dagokion horretan sartzea maila aurreraino. Proposamen gisa, egia esan, ez dugu gaizki ikusten baldin bada guk ulertu duguna, hau da, izatea irakasgai bat edo aipamen bat, baina aritzea nolabait ere unibertsitatean denbora batez ikertzen, aztertzen, jakitera ematen, gero irakasle izango diren horiek euren ikasgeletara eramateko jakintza hori edo beraiek aberasteko da. Bada igual eramateko gero hori modu praktiko batean Nafarroako ikasgeletara, pentsatzen dut ez soilik D ereduetako ikasgeletara, baizik eta orotara, G ereduko Nafarroako ikasgela orotan irakasleek egin dezaten historian, gure historian, gure hizkuntza propioa den honen historian zeharreko ibilbide bat, eta jakituria osoz azaltzeko zer izan den euskara gure honetan batua agertu bitartean.

[No sé exactamente cuál es el tema. Entonces, para nosotros aquí se juntan cosas diferentes. Por un lado, proponer la inclusión o creación de una mención en el Grado de Educación. Ese puede ser uno. No nos parece ni muy bien ni mal, y también nos parece curioso que se introduzca en ese diseño o en el diseño de un grado o una asignatura hay que incluir en un nivel educativo que de por sí no es obligatorio, introducirse en ese nivel avanzado que corresponde a otra institución y a los académicos. Como propuesta, la verdad, no nos parece mal si es lo que nosotros hemos entendido, es decir, tener una asignatura o una mención, pero dedicarse de alguna manera a investigar, analizar, dar a conocer durante un tiempo en la universidad, para que luego los profesores futuros transmitan en sus clases ese conocimiento o si es para su propio enriquecimiento. Si es para llevar eso posteriormente de una manera práctica a las clases de Navarra, creo que no solo a las clases de los modelos D, sino a todas, para que en todas las clases del modelo G de Navarra, los profesores hagan un recorrido a través de la historia, de nuestra historia, de la historia de esta lengua nuestra, y que expliquen con todo su conocimiento o sabiduría cuál ha sido el nuestro euskera hasta la aparición del euskera batua*].*

Horren kontra ez gaude. Baina ez dakit horretaz ari ote garen. Eta gainera onartzen baldin baduzu Alderdi Sozialistak ekarri duen proposamena, gero eta nahasiago ikusten dugu dena. Batetik hemen sartzen da ere bai Hezkuntza Departamentua, gero Unibertsitate Departamentua, gero unibertsitatea bera. Ez dakit zer klaseko edo zer motatako aipamena sortzeko, ez dakit zeinek sortu behar duen, zeinek proposatu behar duen, nork nori nor. Eta gero beste eztabaida asko egon daitezke bitartean: zer den euskalki bat, zer hizkera bat, zenbat dauden Nafarroan, zenbat egon diren, zenbat irakatsi nahi ditugun, irakatsi nahi ote ditugun,

aipatu nahi ote ditugun soilik, ezagutzera eman, ezagutzera eman soilik aipamenean barruan eta unibertsitatetik haratago ez, Hezkuntza Departamentua sartzen ote den gero horrek nahi dugulako izan dezala isla ikastetxeetan.

[No estamos en contra de eso. Pero no sé si estamos hablando de eso. Y si además acepta la propuesta que ha aportado el Partido Socialista, cada vez lo vemos todo más confuso. Por un lado, también entra el Departamento de Educación, luego el Departamento de Universidad, luego la propia universidad. Para crear una mención de no sé qué clase o tipo, que no sé quién debe crear, quién debe proponer, quién a quién el qué. Y luego puede haber otros muchos debates mientras tanto: qué es un euskalki*, qué es un habla, cuántos hay en Navarra, cuántos ha habido, cuántos queremos enseñar, si queremos enseñarlos, si tan solo deseamos mencionarlos, darlos a conocer, darlos a conocer en la mención y no más allá de la universidad, si entra el Departamento de Educación porque queremos que luego eso se refleje en los centros educativos].*

Uste dut proposamenari gauzatzea falta zaiola. Ez dugu gaizki ikusten, aberasgarri iruditzen zaigu, ez dakit zer dela-eta ez den hori ikasten, edo ez dakit ikasten ote den. Nik ez daukat argi hori irakasten ote den egun edo ez.

[Creo que la propuesta carece de concreción. No la vemos mal, nos parece enriquecedora, pero no sé por qué no se está estudiando ya, ni siquiera sé si ya se está estudiando. No tengo claro si hoy en día se está enseñando o no].

Begira, nik argi daukadana eta Geroa Bain argi daukaguna da egun oso kreditu gutxi irakasten direla euskaraz Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Ez dakit sikiera proposatzen ari zareten hau euskaraz irakatsiko ote zen. Nork irakatsiko ote zuen eta zein hizkuntzatan. Nik ez dakit hizkuntza beikularra izango ote litzatekeen euskara edo nafar euskalkiaz arituko ote ziren, edo arituko ote diren hau aurrera eramaten bada unibertsitatean erdaraz. Bai? Ez dakit.

[Mire, lo que yo tengo claro y tenemos claro en Geroa Bai es que actualmente se imparten muy pocos créditos en euskera en la Universidad Pública de Navarra. Ni siquiera sé si están proponiendo impartir esto en euskera. Quién lo impartiría y en qué idioma. No sé si el idioma vehicular sería el euskera, si se utilizaría el dialecto navarro o si, en caso de que esto saliera adelante, se impartiría en castellano en la universidad. No lo sé].

Hemen irakurri dudana da "Asignatura optativa en dialectos", baina *en dialectos* ez daiteke eman asignatura bat, hori da *en idiomas, ¿una asignatura en idiomas?, ¿en hablas?, ¿a tiempos de cinco minutos de cada?* Hori nola egiten ahal da kudeatu? Aditu dut esan duzuna, jakina, baietz. Orduan baztaneraz eman nahi baldin baduzu asignatura bat, esan. Eske hori beste gauza bat da. Bai, bai, nik aditu dut eta ulertu dut nere ulermenaren arabera iruditu zaidana. Barkatuko didazu.

[Lo que yo he leído aquí es "Asignatura optativa en dialectos", pero en dialectos no se puede dar una asignatura, es que eso es en idiomas, ¿una asignatura en idiomas?, ¿en hablas?, ¿a tiempos de cinco minutos de cada? ¿Cómo se puede gestionar eso? Claro que he oído lo que ha dicho usted. Entonces, si quiere dar una asignatura en baztanés, dígalo.

Es que eso es otra cosa. Sí, sí, yo he oído y he comprendido lo que me ha parecido según mi propia comprensión. Usted me perdone].

Ni oso erne egon naiz, eta hemen nire apunteak hartu ditut: espezialitate txikiak, euskalkien irakaskuntza edota euskalki edota hizkera baten irakaskuntza. Hori zure diskurtsoan esan duzu, gero errepasatu nahi baduzu. Igual zaigu euskalkiz, hizkeraz, edo zertaz ari garen.

[Yo he estado muy atenta y también he tomado mis notas: especialidades menores, enseñanza de dialectos y/o enseñanza de un dialecto y/o habla. Eso lo ha dicho usted en su discurso. Repáselo después si quiere. Parece que da igual hablar de dialectos, hablas o de lo que sea].

Igual zait. Kontua da, guretzako egin behar dena da bultzatu Nafarroako Unibertsitate Publikoan kreditu gehiago euskaraz, eta gradu gehiago euskaraz. Aspaldidanik badira eskaera batzuk guk ere bai gobernuan izan garenean jarri ditugunak mahai gainean. Urte anitzetarako finantzazio-hitzarmena sinatu zenik ere bai hor ezarri zen neurgailu bat eta gutxieneko batzuk eta zein zen konpromisoa eta hori aurrera eramateko zer behar zen. Ingelerazko kreditu gehiago, baina, jakina, ere bai euskarazko gehiago ere eta gradu gehiago euskaraz.

[Me da igual. La cuestión es que en nuestra opinión lo que debemos hacer es fomentar más créditos y más grados en euskera en la Universidad Pública de Navarra. Ya hace tiempo que planteamos algunas peticiones cuando estuvimos en el gobierno. Se suscribió un convenio plurianual, con un indicador de medición y se estableció cuál era el compromiso y qué hacía falta para cumplirlo. Más créditos en inglés, pero también más en euskera, así como más grados en euskera].

Eta hor aspaldidanik daramagu denbora eta denbora, eta hori lagundu izan dugu, Unibertsitatearen aurrean defendatu izan dugu gobernu bezala behar-beharrezkoa ikusten genuela, besteak beste, Erizaintza Gradua eskaintzea behingoz euskaraz. Bazirelako ikasleen aldetikan profil egokiak, baina ez bakarrik irakasleen aldetikan ere bai. Ikusten genuelako nahikoa urrats erraza zela ematea hori, ematen ahal zen konplikazio handirik gabe eta egiten ahal zela behingoz eskaini beste gradu bat euskaraz Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Gutxienekoen gutxienekoak dira horiek, eta minimo horietan mugitzen gara beti. Eta hori gauzatzen ez den bitartean, guretzako horrelako gauzak… Egia esan, abstenituko gara, kontra ez dugu botako, ez dugu gure kontrako botoa emango, baina ez dakit ongi, ez dakit, nahi dut ikusi nola gauzatzen den hori, euskalkietan emango den irakasgai bat, ez dakigu ze euskalkietan, ez dakigu nork emango duen, nola, zer eduki. Ez dakigu.

[Llevamos largo tiempo en eso, y lo hemos apoyado, defendiendo como gobierno ante la Universidad lo que considerábamos absolutamente necesario, entre otras cosas, ofrecer de una vez por todas el Grado de Enfermería en euskera, porque tanto los alumnos como los profesores tenían un perfil adecuado. Porque veíamos que era un paso bastante fácil de dar, sin grandes complicaciones y que se podía ofrecer de una vez por todas otro grado en euskera en la Universidad Pública de Navarra. Esos son mínimos de mínimos y siempre nos movemos en esos mínimos. Y mientras eso no se lleve a cabo, para nosotros este tipo de cosas… La verdad es que nos vamos a abstener, no vamos a votar en contra, no vamos a dar nuestro voto en contra, pero no sé bien, no sé, quiero ver cómo se va a materializar

una asignatura que se va a impartir en dialectos, no sabemos en qué dialectos, no sabemos quién la va a impartir, cómo, cuál es su contenido. No lo sabemos].

Gaizki iruditzen zait? Ez. Ongi? Bueno. Abstenituko gara. Aterako da nonbait ere ados baitzaudete. Horrek ez du esan nahi inork konpromisoa hartuko duenik gero hori aurrera eramateko. Hartuko dute, edo ez, edo bai, edo auskalo. Batek daki. Hau gertatzen den bitartean, ikusten dugu ez dela handitzen ari kreditu-eskaintza euskaraz Nafarroako Unibertsitate Publikoan nahi genukeen bezain beste. Eta orain berritu behar da, denok ere badakigu, horrela adierazi baitigute Departamentutik, orain sinatu behar dela sinatu orain arte prorrogatua egon den hitzarmena. Nahi dut pentsatu, ze egia esan ez dakigu zeintzuk diren zehaztasunak eta nola gauzatuko den azkenean, nik nahi dut pentsatu horretan mantenituko dela konpromiso hori eta mantenituko dela ere bai Unibertsitate Publikoari egindako eskaera hori: ahalegina egin dezan eta konpromisoa har dezan gero eta kreditu gehiago jartzeko euskaraz.

[¿Me parece mal? No. ¿Bien? Bueno. Nos vamos a abstener. Ya saldrá por algún otro lado si están de acuerdo. Eso no quiere decir que luego nadie asuma el compromiso de llevarlo a cabo. Lo asumirán o no, o tal vez sí. Quién sabe. Mientras tanto, vemos que no se incrementa tanto como nos gustaría la oferta de créditos en euskera en la Universidad Pública de Navarra. Y ahora hay que renovar, como todos los sabemos puesto que así nos lo indicaron desde el Departamento, hay que suscribir el convenio que ha estado prorrogado hasta ahora. Quiero pensar, porque, a decir verdad, desconocemos los detalles y cómo acabará llevándose a cabo, pero quiero pensar que se mantendrán tanto el compromiso como la petición realizada a la Universidad Pública, para que haga un esfuerzo y se comprometa a implantar más créditos en euskera].

Hau baldin bada bidea, gutxiago da zero. Ezer ez baino gehiago bada, baldin eta euskaraz, ez dakit zer euskalkitan, zenbat euskalkitan edo nola, eskaintzen bada. Ez dakit euskarazko krediduen handitze horretan konputatuko duen zera den edo ez. Auskalo. Nik ez dakit. Hiru kreditu gehi beste hiru. Beno, hogeita hamar krediduena, hori zuk ere onartu duzu, eta ez zen proposamen bat, ez da oso, beno neurriz kanpokoa zen, baina ulertzen ahal da zerbait. Krediduak izan daitezke hiru edo hogeita hamar, baino izatea kasu honetan aipamena da proposatzen duzuna. Bai, hiru gehi hiru. Ikusiko dugu. Guk ez dugu ulertzen, igual da ez garelako egon gaiak exijitzen duen atentzio osoarekin jarrita horretan. Baliteke, baliteke. Edo gai ez garelako. Edonola, guk argi daukagu egin behar dena dela euskarazko kreditu-zenbakia eta gradu eskaintza handitu unibertsitate publikoan.

[Si ese es el camino, menos es cero. Ya es más que nada, siempre que se imparta en euskera, en no sé qué euskalki*, en cuántos dialectos o cómo. No sé si computará en ese incremento de los créditos en euskera. Quién sabe. Yo no lo sé. Tres créditos más otros tres. Bueno, lo de los treinta créditos, eso es algo que usted también ha aceptado, y no era una propuesta, no es muy, bueno, desproporcionado, pero es entendible. Puede que sean tres o treinta créditos, pero lo que ha propuesto en este caso es que sea una mención. Sí, tres más tres. Ya veremos. Nosotros no lo entendemos, tal vez sea porque no hemos puesto toda la atención que la cuestión exige. Quizás, quizás. O porque no somos capaces. De cualquier manera, lo que tenemos claro es que se debe incrementar el número de créditos y la oferta de grados en euskera].*

Voy terminando, Presidente. Lo que entendemos hasta dónde nos da para entender, que según el portavoz de Navarra Suma, no le hemos prestado demasiada atención. Demasiada para lo que es la propuesta. Demasiado tiempo, porque es una propuesta que nos parece que hace aguas por todos los sitios. No nos parece mal por definición, pero es que la definición misma no la entendemos. Y menos cuando se adopta ya está esta última forma en la literalidad de la enmienda presentada por el Partido Socialista en la que se habla de la creación de una asignatura optativa en dialectos navarros. Ahí es nada. No nos vamos a oponer. Si es que se lleva a cabo, estaremos ansiosas y, además, haremos un seguimiento para ver cómo se conforma esa asignatura, en qué dialectos navarros, qué forma tiene y si además va a ser impartida en dialectos navarros, saber si se va a dividir por trimestres o cómo va a ser el reparto para cada dialecto. Más allá de eso, lo que creemos desde Geroa Bai, y termino, Presidente, es que lo que hace falta es un compromiso de hace tiempo que la propia Universidad adoptó y está pendiente de cumplir, son más créditos en euskera, más asignaturas, pero no solo más grados. Por lo tanto, desde Geroa Bai, nos abstendremos ante esta propuesta y seguiremos defendiendo lo que hemos venido defendiendo hasta ahora. Eskerrik asko.

SR. PRESIDENTE (Sr. Asiain Torres): Eskerrik asko zuri, Solana andrea. Orain, EH Bildu Nafarroa taldearen izenean, Ruiz andrea, zurea da hitza hamar minutuz.

[Gracias a usted, señora Solana. Ahora, en nombre del grupo EH Bildu Nafarroa, señora Ruiz, dispone de la palabra durante diez minutos].

SRA. RUIZ JASO: Mila esker, presidente jauna. Arratsalde on guztioi. Mila esker, Iriarte jaunari gaurkoan mozio hau aurkezteagatik. Neuk ere segur aski orain hitz egiteko ditudan hamar minutu baino dezente gehiago dedikatu diot mozioari, eta horregatik bakarrik, gauza batzuk berrirakurri eta freskatzeagatik, eskertzen da mozio bereziago bat edo normalean izaten ditugun mintzagaietatik harago, bestelako lanketa eskatzen dutenak aurkeztea.

[Muchas gracias, señor Presidente. Buenas tardes a todos. Quiero agradecer al señor Iriarte que haya presentar esta moción de hoy. Seguramente yo también he dedicado a la moción bastante más de los diez minutos que tengo ahora para hablar, y solo por eso, por releer y refrescar algunas cosas, se agradece que se presente una moción más especial, más allá de los temas de conversación que solemos tener, que exigen otro trabajo].

Neuk ere nire ulermen-gaitasunak pixkat murritzak edo murriztuak izango ditut. Benetan kostatu zait mozioaren helburua ulertzea, eta idatzita neukan beste inori entzun baino lehen. Kostatu egin zait mozioaren helburua ulertzea. Egia da sakonean planteatzen duen eztabaida historikoa dela, euskara batuaren eta euskalkien erabilera-esparruak zein diren irakaskuntzan eta hezkuntzan, oro har, euskalkien tokiak zein izan behar duen. Asko dago idatzita horren inguruan. Tesi doktoralak ere egin dira horren inguruan, eta badira ikuspegi diferenteak, baina iruditzen zait azken urteetan garai bateko maximalismoak, bai alde batetik eta bai bestetik, gainditzeko bide bat egin dela. Badago gauza bat zioen azalpenean azaltzen duzuna, eta horrekin erabat ados gaude, eta bada euskara batua eta euskalkiak biak direla ez bakarrik onargarriak eta aintzat hartzeko modukoak, baizik eta bateragarriak direla eta osagarriak direla –beno zuk ez hor duzu aipatzen, nik gehitzen diot– hizkuntzaren normalizazio prozesuan.

[Yo también debo tener mi capacidad de comprensión algo reducida o limitada. Realmente me ha costado captar el objetivo de la moción, y antes de escuchárselo a nadie, también lo tenía yo escrito. Me ha constado entender el objetivo de la moción. Es cierto que el debate que plantea es un debate histórico, cuáles son los ámbitos de uso del euskera batua *y de los dialectos en la enseñanza y en el ámbito educativo en general, cuál debe ser el lugar de los dialectos. Hay mucho escrito al respecto. También se han elaborado tesis doctorales al respecto, y existen diferentes enfoques, pero me parece que en los últimos años se ha recorrido un camino para superar los maximalismos de antaño, los de una parte y los de la otra. Hay una cosa que ha explicado en la exposición de motivos, con la que estamos totalmente de acuerdo. Y hay que decir que el euskera* batua *y los dialectos, ambos, no solo son aceptables y dignos de consideración, sino que son compatibles y complementarios –bueno, usted no lo menciona ahí, lo añado yo– en el proceso de normalización lingüística].*

Horretan erabat ados gaude. Bakoitzak bere tokia izan behar du, eta tokia badago euskalkientzat eta tokia badago euskara batuarentzat, eta euskalkiek hiztunari ematen dioten balio erantsia bada hizkuntzarekiko atxikimenduan urratsak egiteko, bereziki transmisio hori naturala denean. Guk begiratu diogu beti horri, hizkuntzari. Baina aitortu behar dut mozio hau irakurri nuenean, aurreiritzi bat banuela, ze inoiz hitz egin dugu gai hauetaz, eta iruditzen zait, eta historikoki bai UPNk eta bai Navarra Suma osatzen duten gainontzeko alderdiek, beti badaukazue joera euskalkiak maila goren batean jartzeko, erreserba naturaletan hitz egiten den jatorrizko euskara eta euskara naturala eta euskara ona eta kalitatezko euskara. Hori, euskara batua, azken batean, eredu arrotz bat, artifizial bat eredu horren gainean. Hori eztabaida historikoa izan da. Iriarte jauna. Ez dut esaten zuk hori inoiz esan duzunik, baina hori eztabaida historikoa izan da politikoki. Eta euskara batua politikoki ere erabili da nafar eskuinaren aldetik esateko abertzaleok modu artifizialean hedatu eta inposatu nahi dugula euskara batua baliatuz, eta euskara batua ez dakit noren tresna politiko bat badela horretarako. Orduan, utzidazu aurreiritzi hori mahai gainean jartzen.

[En eso estamos totalmente de acuerdo. Cada uno debe tener su sitio, y hay sitio para los dialectos y hay sitio para el euskara batua*. El valor añadido que los dialectos le dan al hablante es el de dar pasos en la adhesión a la lengua, especialmente cuando esa transmisión es natural. Nosotros nos hemos fijado en eso, en la lengua. Pero he de reconocer que cuando leí esta moción, tenía un prejuicio, porque en alguna ocasión hemos hablado de estos temas, y me parece que históricamente tanto UPN como el resto de los partidos que conforman Navarra Suma siempre tienden a elevar los dialectos a un nivel superior, como el euskera original que se habla en las reservas naturales, como el euskera natural, el buen euskera, el euskera de calidad. Y como si el euskera* batua*, a fin de cuentas, fuera un modelo extraño, un modelo artificial. Ese ha sido un debate histórico, señor Iriarte. No digo que usted lo haya dicho, pero ese ha sido un debate histórico políticamente. Y la derecha navarra también ha utilizado el euskera* batua *con fines políticos para decir que los nacionalistas queremos imponer y expandir un modo artificial aprovechándonos del* batua*, que el euskera* batua *es la herramienta política de no sé quién para alcanzar ese objetivo. Permítame plantear ese prejuicio].*

Baina gero hipotesi bat formulatu diot neure buruari eta esan dut: «Nik pentsatu nahi dut eta pentsatzen dut borondate onez egindako mozioa dela». Orduan aurreiritzi hori baztertu dut, eta hipotesi horren baitan pentsatu nahi dut helburua mozio hau aurkeztearena badela, bat, euskalkiak eta euskara batuak betebeharreko toki horren inguruan ekarpen eraikitzaile bat egitea; bi, Lehen Hezkuntzako irakasleek beraien trebakuntza-prozesu horretan euskara irakasle ere izango diren neurrian gaitasun handiagoak izatea euskaldun osoak izango diren ikasleak hezitzeko; hiru, euskararen normalizazio prozesuan aurrera egitea; lau, ikasleen euskararekiko atxikimendua areagotzea euskalkiek berez daukaten afektibitate puntu hori emanez; eta azkenik, Nafarroako euskalkiak biziberritzea eta *prestigiatzea*. Helburu horiek erabat txalogarriak iruditzen zaizkit, eta bat egiten dugu helburu horiekin. Kontua da helburu horiek betetzeko asmoa balu mozio honek, gure ustez hau *okurrentzia* bat dela. Gure ustez horrela planteatzeak ez dauka ez hanka ez buru, eta zinez eta benetan esaten dut.

> *[Pero después me he formulado una hipótesis, y me he dicho: «Quiero pensar y pienso, que es una moción presentada de buena fe». Entonces, he dejado de lado ese prejuicio, y, en esa hipótesis, quiero pensar que el objetivo de presentar esta moción es, uno, hacer una aportación constructiva en torno a ese lugar que el* euskalki *y el euskera* batua *deben ocupar; dos, que los profesores de Primaria tengan mayores capacidades para educar a alumnos que sean vascohablantes en la medida en que también serán profesores de euskera en ese proceso de capacitación; tres, avanzar en el proceso de normalización del euskera; cuatro, aumentar el apego de los alumnos al euskera dando ese punto de afectividad que tienen los dialectos en sí; y por último, revitalizar y prestigiar los dialectos de Navarra. Esos objetivos me parecen absolutamente loables, y nos adherimos a ellos. La cuestión es que, si esta moción tuviera intención de cumplir esos objetivos, creemos que esto es una ocurrencia. Creemos que plantearlo así no tiene ni pies ni cabeza, y lo digo de verdad].*

Hasteko, gauza asko eztabaida litezke, ezta? Iruditzen zait gauza dezente nahasten direla. Gauza bat dira euskalki literarioak, beste gauza bat da tokian toki eta modu informalean eta erregistro informaletan baliatzen diren hizkerak. Beste bat badira eskualdeetako "berbetak" deitzen direnak edo azpi-euskalkiak. Izan dugu eztabaida. Zer da Baztanera? Baztanera ez da euskalki bat. Ez da euskalki bat. Orduan hasteko irizpideak ere garbi ere ez ditugunean, ematen du arinkeria handiz planteatzen dela Nafarroako euskalkietan irakastea. Nik benetan galdetzen dut ea zer esan nahi dugun horrekin. Benetan planteatzen da maisu-maistrek euskalkietan irakatsi behar dietela ikasleei? Gu horrekin ez gaude ados. Ez gaude ados.

> *[Para empezar, se podrían debatir muchas cosas, ¿no? Me parece que se confunden bastantes cosas. Una cosa son los dialectos literarios, otra cosa son los hablas que se utilizan en el lugar y de forma informal y en los registros informales. Hay otros que se llaman hablas regionales o subdialectos. Ya hemos tenido ese debate. ¿Qué es el baztanés? El baztanés no es un dialecto. No es un dialecto. Si ni siquiera tenemos claros los criterios para empezar, parece que se plantea con gran frivolidad la enseñanza en los dialectos navarros. Yo pregunto realmente qué queremos decir con eso. ¿Realmente se plantea que los maestros deben enseñar a los alumnos en los dialectos? Nosotros no estamos de acuerdo con eso. No estamos de acuerdo].*

Eta nik ikastoletan bizkaieraz irakasten denik ez du sinesten. Ez, ez, ez dut sinesten. Ez dut sinesten. Haur Hezkuntzan eta bereziki maila jakin batzuetan, kontestu batzuetan eta bereziki Haur Hezkuntzan ezta Lehen Hezkuntzan ere, bizkaierak, beno mendebaleko euskalkiak tartea izatea eta eskolan euskalkirik badaukatela tarterik, hori egia da. Ikastoletan bizkaieraz irakasten denik, ez dut uste horrela denik. Eta bestela esadazu zer ikastolatan, eta zein mailatan. Ulertu dizut modu orokorrean esan duzula. Ez da logikoa. Eta mozioak hori planteatzen baldin badu, helburua baldin bada, mozioak dioen bezala, balioko luke ikasleei euskalkietan irakasteko Nafarroan, Kastejonen D ereduan?

> *[Y yo no creo que en las ikastolas se enseñe en vizcaíno. No, no, no me lo creo. No me lo creo. Es cierto que en Educación Infantil y especialmente en determinados niveles, en algunos contextos y especialmente en Educación Infantil ni siquiera en Primaria, el dialecto vizcaíno, bueno, el dialecto occidental, tiene cabida en la escuela. Pero eso de que en las ikastolas se enseña en vizcaíno, no creo que sea así. Y, si no, dígame en qué ikastola y en qué nivel. Le he entendido que lo ha dicho de forma general. No es lógico. Y si la moción plantea eso, si ese es el objetivo, como dice la moción, ¿serviría para enseñar a los alumnos en los dialectos en Navarra en el modelo D de Castejón?]*

Mozioak egiten ditu baieztapen batzuk benetan ez dakidana oso ongi zer esan nahi duten. Idatziz eta ahoz irakatsi beharko liekete ala ahoz bakarrik? Kontuan hartzen baldin badugu Nafarroako hizkerak ez daudela araututa. Mendebaleko hizkerak egin du beste bide bat, mendebaleko hizkera araututa dago, nafar hizkerak eta Nafarroako euskalkiak ez daude araututa. Zein ereduri jarraitu behar diogu? Joakin Lizarraga Elkanokoari? Zeri? Zein euskalkitan? Alegia, Leitzako irakasle batek Leitzako euskalkian erakutsi beharko lieke ikasleei Leitzan, baina Garraldan ere bai, Berriozarren ere bai, Kastejonen ere bai?

> *[La moción hace algunas afirmaciones que, la verdad, no sé muy bien qué significan. ¿Deberían enseñarles por escrito y oralmente o solo oralmente?. Si tenemos en cuenta que los hablas navarros no están regulados. El habla occidental ha recorrido otro camino, el habla occidental está regulado, el habla y los dialectos navarros no están regulados. ¿Qué modelo debemos seguir? ¿El de Joaquín Lizarraga Elkano? ¿Cuál? ¿En qué dialecto? Es decir, un profesor de Leitza debería enseñar en el dialecto de Leitza a los alumnos de Leitza, pero ¿también en Garralda, también en Berriozar y Castejón?]*

Euskalkiak eskolan daukan tokia da afektibitatearena, da testuinguruarekiko loturarena. Lehen Hezkuntzako irakasleak ez dira filologoak, ez dira dialektologian adituak. Ikasleek eta irakasleek tokia egiten baldin badiote eskolan euskalkiari, eta hori oso zilegi da eta positiboa izan daiteke, da testuinguru natural batean. Berriozarreko ikasle gehienak eskolaren bidez euskaldundu izanen dira, batzuk zorte pixka batekin etxean. Baina segur aski etxetik euskara jaso dutenen ehuneko 90 guraso euskaldun berrien aldetik edo ikastoletan edo eskolan era berean euskaldundu diren ikasleen aldetik jaso dute. Beraz, ez dakit zertaz ari garen, ez dakit benetan zertaz ari garen. Irakasle izan behar dutenek euskalkiren bat ikasi behar dute, benetan, jatorrizko mozioak planteatzen duen bezala, hogeita hamar kredituko ikasgai sorta batekin? Nork erakutsiko die?

> *[El lugar que ocupa el dialecto en la escuela es el de la afectividad, es el de la conexión con el contexto. Los profesores de primaria no son filólogos, no son expertos en dialectología.*

Si alumnos y profesores dan cabida a los dialectos en la escuela, lo cual es muy legítimo y puede ser positivo en un contexto natural, en un contexto natural. La mayoría de los alumnos de Berriozar se euskaldunizarán a través de la escuela, algunos con un poco de suerte en casa. Pero seguramente el 90 por ciento de los que han aprendido el euskera en casa lo han recibido de padres euskaldunberris *o de alumnos que se han euskaldunizado de la misma manera en las ikastolas o en la escuela. Por lo tanto, no sé de qué estamos hablando, no sé de qué estamos hablando realmente. ¿Quiénes van a ser profesores tienen que estudiar algún dialecto, de verdad, como plantea la moción original, con una serie de asignaturas de treinta créditos? ¿Quién les va a enseñar?]*

Nafarroako hainbat euskalki eta hizkera guztiak ikasi beharko dituzte lanpostua duten eskolaren arabera horretara egokitzeko? Ze nik horrekin ikusiko nioke lotura, ezta? Zu Luzaidera joan behar baldin baduzu, igual behe-nafarreraz ikasi beharko duzu, Luzaiden bakarrik. Berriozarren klaseak emateko ez dirudi oso zentzuzkoa euskalkiek… Ez? Diot nik. Eta ia zer irakatsi behar dieten euskalkian. Euskalkia bera irakastea planteatzen duzu? Horretaz ari zara. Orduan, euskalkia bera? Edo Solana andreak esan duen bezala, euskalkian irakatsi behar zaie ikasgairen bat edo ez? Euskara batuak badauka funtzio bat eskolan, eta euskara batua da eta izan behar du eta guk horrela defendatzen dugu, euskara batua da, hizkuntza aldaera estandarizatua da eta normalizatua da, hezkuntza-sisteman nagusi izan behar duen aldaera. Horrek ez du esan nahi euskalkiak bazter batean gelditu behar dutenik. Eta asko dago idatzita, esan dizut. Badago 2000. urteko 639 orrialdeko Julian Maiaren tesi bat, hain zuzen, *Euskara batuaren eta euskalkiak euskaldunen arteko harremanen bilakaera irakaskuntzaren ikuspuntutik*. Artikulu sorta oso interesgarriak badaude eta eztabaidak indarrean dirau. Baina oso garbi esaten da euskalkiak noiz eta nola erabili behar diren. Eztabaida irekita badago, baina badira irizpide batzuk hezkuntza eleanitza zientifikoaren baitan nahiko adostasuna lortzen dutena. Eta bada tokian toki eta ikasle euskalkidunak eta ingurune euskalkidunetan horri tokia eman behar zaiola.

[¿Tendrán que aprender varios dialectos y todos los hablas de Navarra para adaptarse en función de la escuela en la que tengan el puesto de trabajo? Porque yo lo vería relacionado con eso, ¿verdad? Si tiene que ir a Luzaide, debe aprender bajonavarro, solo en Luzaide. Para impartir las clases de Berriozar, los dialectos no parecen muy razonables. Digo yo. Y ¿qué es lo que les tienen que enseñar en el dialecto? ¿Se plantea enseñar el propio dialecto? ¿A eso se refiere, entonces, al propio dialecto? ¿O como ha dicho la señora Solana, hay que enseñarles en dialecto alguna asignatura o no? El euskera batua *tiene una función en la escuela, y el euskera* batua *es y debe ser, y así lo defendemos, el euskera* batua *es la variante estandarizada y normalizada, variante que debe imperar en el sistema educativo. Eso no quiere decir que se deban dejar de lado los dialectos. Y hay mucho escrito, ya se lo he dicho. Existe una tesis de Julian Maia de 639 páginas del año 2000 sobre la evolución de las relaciones entre el euskera* batua *y los dialectos vascos desde el punto de vista de la enseñanza. Hay una serie de artículos muy interesantes y el debate sigue vigente, pero se dice muy claramente cuándo y cómo se deben utilizar los dialectos. El debate está abierto, pero hay criterios que se han alcanzado bastante consenso en el seno de la educación plurilingüe científica. Y hay lugares y alumnos y entornos vascoparlantes a los que hay que dar cabida].*

SR. PRESIDENTE (Sr. Asiain Torres): Bukatu behar duzu, mesedez.

SRA. RUIZ JASO: Bai, oraintxe amaituko dut. Beraz, mozio hau iruditzen zait oso bortxatua termino orokorretan planteatuta, kontuan hartuta Magisteritzako ikasle gehienak, horiek ere, nik bezala edo Solana andreak bezala, ez dugunean euskalki naturalik ez dugulako etxean jaso, transmisio hori eten zelako, hain zuzen, hizkuntza-politika jakin batzuk izan zirelako hamarkadetan zehar. Orduan horrek izan du eraginik euskalkien transmisio-etete horretan. Beraz, zentzua izan dezake ikasgai bat planteatzea bereziki ezagutzeko eta *prestigiatzeko* euskarak Nafarroan izan duen bilakaera, euskalkiak zertan diren, zer diren eta horrek formakuntzan eta irakasle horien lanetan izan dezake zentzua. Baina nik benetan, euskalkietan…

[Sí, terminaré ahora mismo. Por lo tanto, esta moción, planteada en términos generales, me parece muy forzada, teniendo en cuenta que la mayoría de los alumnos de Magisterio, como yo o como la señora Solana también, no hemos adquirido los dialectos de forma natural, en casa, porque esa transmisión se interrumpió precisamente por la existencia de determinadas políticas lingüísticas durante décadas. Entonces eso ha influido en esa suspensión de la transmisión de dialectos. Por tanto, puede tener sentido plantear una asignatura para conocer y prestigiar especialmente la evolución del euskera en Navarra, en qué consisten los dialectos, qué son, y eso puede tener sentido en la formación y en los trabajos de esos profesores. Pero yo, de verdad, los dialectos…].

O sea, una asignatura en dialectos navarros no tiene ni pies ni cabeza formulado así, formulado así, y lo digo, lo digo sinceramente. Y, por cierto, para eso y ahora mismo acabo, me sonaba Orreaga Ibarra, no sé si la conocen ustedes. Bueno, pues, Orreaga Ibarra ha estudiado los dialectos, los hablas del euskera en Navarra. Es profesora en la Universidad Pública de Navarra y da o ha dado clases de asignaturas de libre configuración, *Nafarroako euskal hizkerak, Hablas dialectales navarras* y *Euskal dialektologia*. Por tanto, lo que plantea el Partido Socialista de Navarra, que yo sepa existe. Son asignaturas de libre configuración en Magisterio. Más allá de eso, bueno pues se mantiene que nos abstendremos, creo que no aporta demasiado y si se acepta, pero bueno la moción original, sinceramente, y por las razones que he expuesto, pues no le vemos… Nos parece que puede ser bien intencionada, pero sinceramente, desde un punto de vista práctico no le vemos ninguna virtualidad.

SR. PRESIDENTE (Sr. Asiain Torres): Eskerrik asko, Ruiz andrea. Orain, Ahal Dugu taldearen bozeramaile Aznárez andrea, zurea da hitza hamar minutuz ere.

[Muchas gracias, señora Ruiz Ahora, señora Aznárez, portavoz del grupo Podemos, dispone de la palabra también durante diez minutos].

SRA: AZNÁREZ IGARZA: Mila esker, presidente jauna. Nik ulertu dut, ez dakit presidenteak baieztatuko duen, Iriarte López jaunak egin duena dela justu-justu Alderdi Sozialistaren emendakina onartu, eta horrela mozioa bertan behera geratzen dela, ez? Hitz egin behar dugu emendakinari buruz. Bestela, niretzat ere saltsa galanta zen, ze zuk ipintzen zenuena zeure mozioan zen "*mención dialectos navarros del euskera*, hogeita hamar kreditu", eta bat-batean Alderdi Sozialistak aurkezten dizun emendakinean beste gauza bat ipintzen du. Unibertsitateekin gainera hitz egin duzu, ezta? Eta horren ondorioz emendakin hau aurkeztu duzue, eta Navarra Sumak onartu du, eta orain da "*asignatura optativa en dialectos navarros del euskera en el Grado de Magisterio y tres más tres créditos en función de la demand*a". Beraz, hogeita hamar kredituetatik hiru gehi hiru kredituetara, eta mentzio bat zena orain *asignatura*

optativa bat da. Bai? Nik uste dut salto galanta egin duzula zeure moziotik emendakinera. Nik uste dut hemen bi gauza ezberdin zehazten direla eta defendatzen direla.

[Gracias, señor Presidente. Según mi entender, no sé si el Presidente lo confirmará, que el señor Iriarte López ha admitido la enmienda del Partido Socialista, por lo que su moción decae. Es así ¿verdad? Entonces, tenemos que debatir sobre la enmienda. De lo contrario, para mí también era un gran lío, porque lo que usted ponía en su moción era "mención dialectos navarros del euskera, 30 créditos", y de repente en la enmienda que le presenta el Partido Socialista pone otra cosa. Además, ustedes han hablado con las universidades, ¿verdad?, y han presentado esta enmienda, que Navarra Suma ha admitido, y ahora es "asignatura optativa en dialectos navarros del euskera en el Grado de Magisterio y tres más tres créditos en función de la demanda". Por tanto, de los treinta créditos pasamos a tres más tres créditos, y lo que era una mención ahora es una asignatura optativa. ¿Sí? Creo que ha dado un gran salto de su moción a la enmienda. En mi opinión, aquí se especifican y se defienden dos cosas diferentes].

Nik badakit mozioak borondate onez egiten direla, eta gainera onartzeko intentzioarekin. Baina, egia esan, geuri ere, gaur lantaldean pixka bat honi buruz hitz egiten eta, Isak eta biok galdetzen genien geure buruei zer eskatzen diguten, zer eskatzen den mozio honetan. Zertaz ari gara? Posible da, gainera, ordu hauetan, ezta?, arratsaldeko ordu txiki hauetan nire ulergarritasuna ere ez dela ehuneko ehuna, baina geure buruari horrelako galderak egiten genionez zure mozioa irakurrita, jakin gabe emendakin hau ekarriko zigutenik.

[Yo sé que las mociones se hacen de buena fe y, además, con intención de que sean aprobadas. Pero, a decir verdad, en la hemos estado trabajando y hablando entre nosotros en nuestro grupo un poco sobre este tema, e Isa y yo nos preguntábamos a ver qué nos pedían. ¿Qué se solicita en esta moción? ¿De qué se habla? Además, es posible que, a estas horas, a estas horas de la tarde mi capacidad de comprensión tampoco sea del cien por cien, pero nos hacíamos esas preguntas tras leer su moción, sin saber que se presentaría esta enmienda].

Beste galdera bat egiten genion geure buruari: aipamen bat sortu, nork proposatzen du? Gainera, hitz egiten duzue Hezkuntza Departamentua, gero Unibertsitate Departamentua, bi departamentuetatik ez genekien norena izango zen azkenik proposamen hori. Nori? Norentzat? Eta gero beste gauza bat, sakoneko gauza bat: zeintzuk diren irizpideak. Eta niretzat ez dira argi geratu irizpide horiek.

[Otra pregunta que nos hacíamos era la de la creación de la mención, crear una mención, ¿quién lo ha propuesto? Además, hablan del Departamento de Educación, luego del Departamento de Universidad. No sabíamos cuál de esos Departamentos iba a asumir finalmente esa propuesta. ¿A quién? ¿Para quién? Después hay otra cuestión de calado, y es cuáles son los criterios. No me han quedado claro los criterios].

Gure ustez, horrelako ikasketa batzuk mahai gainean ipini nahi baldin badira eta landu nahi baldin badira, beharbada posible da lantalde bat eratzea Unibertsitate Departamentuarekin, Unibertsitate Publikoarekin batera eta beste gainontzeko eragile batzuekin, filologoekin eta. Posible da beharbada lantalde bat sortzea horri eusteko edo horri bultzada bat emateko. Adibide

bat edo posibilitate bat, zeren horrelako mozioak guretzat sakoneko gai bat da eta hemen hamar minututan lantzeko nik uste dut ez dela egokia. Beharbada eztabaida sortzeko eta eztabaidari heltzeko eta, primeran. Baina niretzat, gure alderdiarentzat behintzat, oso sakoneko gaia da.

> *[En nuestra opinión, si se quiere plantear y desarrollar unos estudios de tal calado, tal vez sea posible crear un grupo de trabajo con el Departamento de Universidad, junto con la Universidad Pública y con otros actores, filógogos, etcétera. Quizás fuera posible crear un grupo de trabajo para impulsar este asunto. A modo de ejemplo o de posibilidad, puesto que en nuestra opinión una moción semejante es una cuestión profunda, y no creo que sea apropiado abordarla durante diez minutos. Tal vez, para crear e iniciar el debate sea perfecto. Pero para mí, al menos para mi partido, es una cuestión muy profunda].*

Eta, gainera, zure argudioak entzunda, Iriarte López jauna, nik ulertu dut, badirudi hemen bakoitzak gauza bat ulertu duela, baina nik ulertu dut –gero erantzungo didazu– Nafarroako euskalki guztiak irakatsi nahi direla, eta euskalki guzti horiek eredu guztietan irakasteko? Eta Nafarroa osoan? Hau da, iparraldetik hegoaldera, mendebaldetik ekialdera irakasteko? Ruiz Jaso andreak esan du, Kastejonen irakats daitezke Luzaiden irakasten diren bezala. Ez dakit guzti hori Magisteritza Gradu batean irakasteko ahalmenik daukagun, eta irakasle izateko norbaitek euskalki guztiak jakin behar dituen gero bere ikasleei irakasteko. Ez dakit. Zalantzak sortzen dira horrelako mozio batekin. Haur hezkuntzan egiten da. Egia da.

> *[Además, tras haber escuchado sus argumentos, señor Iriarte López, yo he entendido, aquí parece que cada cual ha entendido una cosa, pero yo he entendido –luego me replicará– que se quieren enseñar todos los dialectos navarros, y, ¿todos esos dialectos en todos los modelos? ¿En toda Navarra? Es decir, ¿de norte a sur, de oeste a este? La señora Ruiz ha dicho que se pueden enseñar en Castejón, cómo se enseñan en Luzaide. No sé si tenemos la capacidad de enseñar todo eso en un Grado de Magisterio, y si para ser profesor alguien debe saber todos los dialectos para luego enseñárselos a los alumnos. No sé. Me surgen dudas ante una moción como esa. En educación infantil se hace. Es verdad].*

Adibidez, nik neuk. Nik ez dut esaten nire etxean «astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala». Nik ez. Nik egiten dut bizkaitarra, Nafarroako beste euskalki batzuekin eta euskara batuarekin nahasita. Dena nahasita nire euskara etxean. Pentsa. Aitari berba egiteko euskara batuan.. Berak ikasi zuen euskara batuan, hala nola Melidakoa izandakoa. Eta pasada bat da, ze txikitatik bagenekien aitari euskara batuan egin behar geniola, bestela ez zuen asko ulertzen, eta amari bere euskaran, Antzuolako euskaran. Orduan, astelehena, martitzena, eguaztena, eguena, egubakoitza, zapatua eta domeka. Aitari: «Aita, asteazkenean joango gara merkatura janaria erostera». «Ama, eguaztenien jungo ga». Hori hemen, Nafarroan, Iruñean, etxe berberean. Beraz, hor dago saltsa. Saltsa izugarria, ez? Nire etxean behintzat. Eta hori ni ikastola batean hazia naizela, eta ni ikastolara joaten nintzenean, hau esanda ez zidaten ulertzen «Zu, egubakoitzan geratuko gara eta eingo ditugu gauzak». Eta nire klasekoek, San Fermin ikastolan: «Nola Ainhoa? Zer esaten diguzu?» «Neska, ez duzu ulertzen? Egubakoitzan jungo gala».

> *[Por ejemplo, yo misma. Yo no digo en casa «astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala» (en euskera* batua*: lunes, martes, miércoles, jueves, viernes). No. Yo hablo vizcaíno, mezclado con otros dialectos navarros y euskera* batua*. En casa el euskera es toda una mezcla. Con mi padre hablo en euskera batua. Claro. Él aprendió euskera* batua

de aquella forma, al ser de Mélida. Y es una pasada, porque desde nuestra infancia sabíamos que a nuestro padre teníamos que hablarle en euskera batua*, porque de lo contrario no entendía mucho, y a mi madre en su euskera, en el euskera de Antzuola. Entonces, «astelehena, martitzena, eguaztena, eguena, egubakoitza, zapatua eta domeka» (en vizcaíno: lunes, martes, miércoles, jueves, viernes, sábado, domingo). A nuestro padre le decíamos: «Aita, asteazkenean joango gara merkatura janaria erostera» (en euskera* batua*: Papá, el miércoles iremos a comprar comida al mercado). «Ama, eguaztenien jungo ga» (en vizcaíno oral: Mamá, iremos el miércoles). Eso aquí, en Navarra, en Pamplona, en una misma casa. Por lo tanto, ahí está el enredo. Un enredo increíble. Por lo menos en mi casa. Y eso que yo me formé en una ikastola, y cuando iba a la ikastola, no me entendían cuando les decía esto: «Zu, egubakoitzan geratuko gara eta eingo ditugu gauzak?» (en vizcaíno informal: ¿Quedamos el viernes para hacer cosas?). Y los de mi clase, en la ikastola San Fermín: «¿Cómo Ainhoa? ¿Qué nos estás diciendo?». «Neska, ez duzu ulertzen? Egubakoitzan jungo gala» (en vizcaíno informal: «Chica, ¿no entiendes? Que iremos el viernes»].*

Ze nik ikasi nuen gazteleraz lau urterekin, eta bueltan nire etxera nihoan eta: «Aita, ikastolan ikasi dut 'txakurra-perro'». «Aita, ikastolan ikasi dut 'Katua-gato, etxea-casa'». *Justamente immertsioa* aldrebes egin neban, baina imajinatu nire etxean zer-nolako hizkuntzetan ibili behar genuen nire anaia eta ni. Nire aitari euskara batuan, behar-beharrezkoa euskara batua nire aitak euskaraz hitz egiteko. Ze klaro, emakume *giputxi* batekin ezkondu zen, eta behar-beharrezkoa zuen euskaraz ikastea. Ikasi zuen euskara batua, eta primeran ze horrela bere seme-alabekin euskaraz hitz egiten du. Eta nik nire amarekin eta nire amaren familiarekin beti egiten dut nire euskara.

[Porque yo aprendí castellano a los cuatro años, y cuando regresaba a casa: "Papá, en la ikastola he estudiado 'txakurra-perro'». «Papá, en la ikastola de aprendido 'Katua-gato, etxea-casa'». Justamente hice la inmersión al revés, pero imagínense el idioma que debíamos hablar en casa mi hermano y yo. A mi padre en euskera batua*, ese euskera batua imprescindible para que mi padre hable euskera. Claro, se casó con una mujer* giputxi *y tenía que aprender euskera. Aprendió euskera* batua*, y es genial porque así habla euskera con sus hijos. Y yo con mi madre y mi familia materna siempre hablo en mi euskera].*

Beraz, honekin esan nahi dut dela eztabaida arina, eztabaida sakona dela, ze bakoitzak gainera bere etxean dauzka bere bizitzak eta zer-nolako euskara erabili duen, euskalkiak erabili dituen bere familiarekin, eta horretan ere sartzen dut euskara emozional hori, bakoitzak bere esparruan zelan bizitzen duen euskara hizkuntza bezala. Hori zen anekdota bat. Eta honekin diot hor daukagula gauza asko egiteko, eta bat nator Solana Arana andrearekin. Unibertsitateak oraindikan ere euskaraz ematen dituen kredituak oso eskasak dira. Eskaera handia da, eta egiten dena ez da egin behar den guztia, unibertsitate publiko batez gainera hitz egiten baldin badugu. Beraz, datozen hitzarmenak sinatzeko ere, nik uste dut unibertsitateak eta Unibertsitate Departamentuak, hau da, Nafarroako Gobernuak ere, egin behar duela landu, sakondu eta garatu kredituak ere gehiago izateko. Ze eskaera baldin badago, eskaintzari ere eman behar da. Eta nik uste dut datozen bi urte hauetan hor daukagula lan egiteko esparrua: eskaini behar diren kredituak eskaini eta unibertsitate publiko batek jasotzen baldin badu diru publikoa, eskaintza

horri ere aurre egin behar dio. Beraz, gure bozka izango da abstentzioa, presidente jauna, eta eskerrik asko.

[Por lo tanto, con esto quiero decir que no es un debate superficial, que es un debate profundo, porque además cada uno tiene en su casa sus vidas y un tipo de euskera que ha utilizado, los dialectos que ha utilizado con su familia, y en eso también incluyo ese euskera emocional, como la lengua vasca que cada uno vive en su ámbito. Esa ha sido una anécdota. Con eso quiero decir que nos quedan muchas cosas por hacer, y coincido con la señora Solana Arana. Los créditos que la Universidad imparte en euskera siguen siendo muy escasos. Existe una gran demanda y no se hace todo lo que se debería, sobre todo si hablamos de la universidad pública. Por lo tanto, también en relación con los convenios que hay que firmar, creo que tanto la Universidad como el Departamento de Universidadades, es decir, el Gobierno de Navarra, también tiene que trabajar, profundizar y desarrollar para que haya más créditos. Si hay demanda, hay que dar la oferta. Y yo creo que ese es el ámbito en el que trabajar durante estos dos próximos años: ofrecer los créditos que haya que ofrecer y, si una universidad pública recibe dinero, debe hacer frente a esa oferta. Por lo tanto, nos abstendremos en la votación, señor Presidente, y muchas gracias].

SR. PRESIDENTE (Sr. Asiain Torres): Eskerrik asko zuri, Aznárez andrea. De Simón andrea beste batzorde batean dagoenez, erreplika egiteko txanda izango da. Beraz, berriro duzu hitza, Iriarte jauna, hamar minutuz kasu honetan.

[Gracias a usted, señora Aznárez. Puesto que la señora De Simón está en otra Comisión, procederemos al turno de réplica. Por lo tanto, vuelve a tener la palabra, señor Iriarte, en este caso durante diez minutos].

SR. IRIARTE LÓPEZ: Pues muchas gracias, señor Presidente. Bueno, en primer lugar, al portavoz del Partido Socialista, quiero agradecerles, cierto que no es la moción que yo había presentado, pero quería agradecerles su enmienda, por lo menos va a permitir que salga. Es cierto que los demás grupos, si no los he entendido mal, van a abstenerse, con lo cual también habría salido. Pero creo que como antes he dicho, lo esencial es que se introduzca el estudio de los dialectos en el sistema universitario. Respecto a la autonomía, porque se insta, no es la primera vez que se insta, a quién y a la universidad pública, para nada se entromete en la autonomía. ¿Qué es un dialecto? Qué es un dialecto es algo que tienen que decir los filólogos.

Ez guk politikariak. Eta horrexegatik ez nintzen ausartzen erratera zenbat diren Nafarroan mintzatzen diren dialektoak eta zeintzuk diren. Baina, guttienez jotzen dut hiru direla. Koldo Zuazoren arabera, nafarrera bera, gero zentrala eta, jakina, sartzen nuen iparraldekoa, nafarra delakoz. Nafar-lapurtera. Baina, oro har, jotzen da elkarrekin daudela edo guttienez Elizan, idazkietan eta abar erabiltzen da forma literario batean, eta, gauzak honela, badakit zatituta dagoela hizkera desberdinetan. Baina, oro har, jo dut egokiagoa zela kontsideratzea dialekto bakar bat gisa.

[No nosotros, los políticos. Por eso no me atrevía a decir cuántos dialectos se hablan en Navarra ni cuales son. Pero considero que por lo menos son tres. Según Koldo Zuazo, el propio navarro, luego el central y por supuesto, introducía el del norte de Navarra, porque

es navarro. Navarro labortano. Pero, en general, se considera que están juntos o, por lo menos, en la Iglesia, se usa en los escritos, etcétera, en una forma literaria. Ya sé que está dividido en diferentes hablas, pero, en general, he considerado que era más apropiado considerarlo como un solo dialecto].

Xedea. Erne egon izan bazina… Begira, Ruiz andereak azaldu du kritikoki, baina azaldu du oso ongi zein zen honen asmoa. Bai, zuk erran duzu kostatu zaizula ulertzea, baina gero laburbildu duzu nik baino hobeki zein zen honen xedea. Eta, izan ere, honen xedea eta hemen erraten da gainera erdarazko bertsioan: *la creación de una mención relativa a los dialectos navarros del euskera en el Grado de Magisterio, impartido por la Universidad Pública, serviría para formar maestros y maestras capaces de enseñar las diferentes variedades del euskera*.

[El objeto. Si usted hubiera estado atenta. Mire, la señora Ruiz lo ha explicado de manera crítica, pero ha explicado a la perfección cuál era el objetivo. Sí, ha dicho que le ha costado entenderlo, pero luego ha resumido mejor que yo cuál era el objetivo. Y es que el objeto, además en la versión en castellano, es: la creación de una mención relativa a los dialectos navarros del euskera en el Grado de Magisterio, impartido por la universidad pública serviría para formar maestros y maestras capaces de enseñar las diferentes variedades del euskera].

Zein kasutan? Begira, nik jotzen dut pertsona bat destinatua dela, berdin zait Baztanen, Leitzan edo, jotzen dut ona dela bertako ikasleentzat maisu horrek jakitea, guttienezko tresnak izatea konprenitzeko zein den bertako hizkuntza. Zeren eta euskaldunok dugun arazoetarik handienetako bat da dagoen haustura euskara batuan eta tokian tokiko barianteen artean. Eta hori da ez da gertatzen bakarrik euskaran, gertatzen da, errate baterako, Bretoiaren kasuan, Bretoiaren kasuan bada benetako amildegia. Eta amildegi horrek antzu bihurtzen du hizkuntza berpizteko saiakera. Kasu honetan, euskararen kasuan, ez da horrenbertzerako.

[¿En qué caso? Supongamos que destinan a una persona, me da igual, a Baztan o a Leitza. Considero que es beneficioso para los alumnos que ese profesor tenga los conocimientos y las herramientas mínimas para comprender el idioma local. Porque uno de los mayores problemas que tenemos los vascohablantes es la ruptura que existe entre el euskera batua y las variantes locales. Y no es algo que pase únicamente con el euskera. Por ejemplo, en el caso del Bretón existe un verdadero abismo. Y ese abismo convierte en estéril el intento de resucitar el idioma. En este caso, en el caso del euskera, no es para tanto].

Eta izan ere, zuk erran duzu euskara batuaren balioa, eta nik ere balioetsi egin dut, azpimarkatu egin dut. Eta konfesatzen dut bai, egia dela existitzen dela karrikan, eta maiz aditu dut, euskara batua ospegabetzea erranez euskara artifiziala dela. Hein batean, erabiltzen dugun erdara ere artifiziala da. Artifiziala, naturala… Asmakizun kulturalak direnez, hein batean guziak dira artifizialak, baina nire kasuan iruditzen zait betidanik azpimarkatu dudala euskara baturaren balorea, hizkuntz inportante bat, baina, inportantea den heinean, tokian tokiko barianteak ere inportanteak dira bizirik jarraitzen dutelakoz eta, horrezaz gain, erran moduan, hizkuntzarekiko lokarria indartzeko balio dutelakoz. Eta maiz ikusten dugu jendeari irakasten zaiola euskara normalizatu bat, baina gero egiaren orenean ez dute erabiltzen barneko atxikimendu hori sentitzen ez dutelakoz. Eta orduan iruditzen zait bai tokian tokiko barianteak irakastea ongi dagoela. Nola? Hombre, nik egiten dudana da eskatzea hori iker dezatela. Baina zehatz-mehatz

nola antolatzen den hau ez dagokit niri, dagokie agintaritza unibertsitarioei. Nik pentsatzen dut Hezkuntza Departamentua saltsan egon behar zela, zeren eta gero xedea bai da Nafarroako euskalkietan…, eta barnean ere sartuko nituzke kanpoko euskalkiak ere bai. Horretarako, polita irudituko litzaidake Nafarroan bizkaiera ikastea. Gauzak horrela, hemen ikasi duten maisuek Elorrion irakasten ahalko dute.

[Usted ha destacado el valor del euskera batua, y yo también lo he valorado y subrayado. Y confieso que ciertamente existe en la calle y he oído a menudo desprestigiar al euskera batua diciendo que es un euskera artificial. En cierta medida, el castellano que utilizamos también es artificial. Artificial, natural… Como invenciones culturales que son, en parte todas son artificiales, pero en mi caso creo que siempre he destacado el valor del euskera batua, una lengua importante, pero de igual manera, las variantes locales también lo son porque siguen vivas y, además, como he dicho, porque sirven para fortalecer el vínculo con la lengua. Y vemos a menudo que se enseña a la gente un euskera normalizado, pero luego a la hora de la verdad no lo utilizan porque no sienten ese apego interno. Entonces, me parece que está bien enseñar las variantes locales. ¿Cómo? Hombre, yo lo que hago es pedir que lo examinen. Pero a mí no me corresponde organizar exactamente esta cuestión, eso les corresponde a las autoridades universitarias. Opino que el Departamento de Educación debería involucrarse, porque luego el objetivo sí es utilizar los dialectos navarros, e incluso incluiría los foráneos. Para ello, me parecería bonito poder aprender vizcaíno en Navarra. Así, los maestros que han estudiado aquí podrían enseñar en Elorrio].

Respecto al uso, en la universidad se usa el vizcaíno. Mire yo a Petxo Idoyaga, a Roberto Uriarte, a Miren Gorrotxategi, no los he escuchado jamás, jamás, jamás hablar en otro idioma que el suyo. ¿Causa problemas? Sí, pero es que en el vasco es así. El vasco es así, y a mí me gusta así. Y creo que su riqueza está así. Y les insisto, no, no, no en *Lehen Hezkuntzan [en Educación primaria]*. *Unibertsitatean [en la universidad]*. Y encima hay ocho idiomas en vizcaíno. Y, ¿qué? ¿Los suspendo porque no son formas normalizadas?

Zuk erraten zenuen: noiz eta nola, dialekto bakotzak badu bere lekua. Hombre, y ¿quien? ¿Lo voy a decir yo cuál es su lugar? Le voy a decir a Petxo Idoyaga gaizki mintzatzen zarela eta erabil ezazu euskara normalizatu bat. Ez. Duela zenbait urte egia da horrek zailtzen zuela, lehen erran dut, hiztunen arteko elkar ulertza. Baina hortiz geroztik nik uste dut ohitu garela, telebistan ere aditzen dugu pertsona batek bizkaiera erabiliz, eta ez gaitu harritzen. Niko Etxartek erabiltzen du beti zuberera, eta ez dut uste, ez dakit zer oztopatzen duenik edo zerbait oztopatzeko egiten duenik. Ez, egiten du lasaitasun osoz, naturaltasun osoz eta iruditzen zait mesede itzela egiten diola euskarari.

[Usted decía: cuándo y cómo, cada uno de los dialectos tiene su sitio. Hombre, y ¿quién? ¿Lo voy a decir yo cuál es su lugar? Le voy a decir a Petxo Idoyaga: Oiga, está hablando mal, utilice un euskera normalizado. No. Es verdad que hace años eso planteaba dificultades, lo he dicho antes, en el entendimiento entre los hablantes. Pero desde entonces, yo creo que ya nos hemos acostumbrado, en la televisión oímos hablar en vizcaíno, y no nos sorprende. Niko Etxart siempre usa el suletino, y no creo que obstaculice nada ni que lo haga por obstaculizar. No, lo hace con toda tranquilidad y con toda naturalidad, y me parece que le hace un gran favor al euskera].

Bueno, creo que con eso está dicho todo. Me alegro de que salga la moción. Yo ciertamente no sé si da para una mención o para una especialidad. Se puede ahora acordar la forma de redactarlo. Efectivamente, yo en la mía la había puesto, como han visto, claro una mención, es una mención en, para enseñar en ese dialecto, el profesor dirá cuál es la mejor forma de enseñárselo. Pero la idea es que efectivamente los maestros que van a impartir en euskera, pues luego puedan ir, «oye, le ha tocado Ergoiena, Etxarri» Pues que sepa el euskera de ahí, porque los alumnos lo agradecerán, y porque dirán… Esto no significa que no tienen que aprender *batua*, por supuesto, tienen que aprender *batua*, pero también el *euskalki*. ¿Qué es complicado? Sí, pero es que nuestro patrimonio lingüístico es bonito, pero es complicado. Nada más y muchas gracias.

SR. PRESIDENTE (Sr. Asiain Torres): Eskerrik asko beste behin, zuri, Iriarte jauna. Beraz, bozketari ekingo diogu. Nortzuk dira alde? (PAUSA).

[Gracias una vez más a usted, señor Iriarte. Por lo tanto, vamos a proceder a la votación. ¿Cuántos, quienes a favor?]

¿A favor? Sí, ¿a favor? ¿En contra? Abstentzioak? Oso ongi. Beraz, orain banan-banan deituko diet telematikoki parte hartzen ari direnei. Hasiko gara. Bujanda jauna.

[¿A favor? Sí, ¿a favor? ¿En contra? ¿Abstenciones? Muy bien. Por lo tanto, voy a llamar uno a uno a quienes están participando telemáticamente. Señor Bujanda].

No le oímos, señor Bujanda.

SR. BUJANDA CIRAUQUI: Sí.

SR. PRESIDENTE (Sr. Asiain Torres): Sí. Gracias. Esparza *jauna*.

SR. ESPARZA ABAURREA: Sí.

SR. PRESIDENTE (Sr. Asiain Torres): Olave anderea. Olave anderea.

SRA. OLAVE BALLERENA: Baietz.

SR. PRESIDENTE (Sr. Asiain Torres): Eskerrik asko. Unzu anderea.

SRA. UNZU GARATE: A favor.

SR. PRESIDENTE (Sr. Asiain Torres): Eskerrik asko. Medina anderea.

SRA. MEDINA SANTOS: Sí.

SR. PRESIDENTE (Sr. Asiain Torres): Eskerrik asko zuri ere. Izurdiaga andrea. Ez da entzuten, baina bai irakurtzen ditut zure ezpainak. Bai, eskerrik asko. Eskerrik asko. Eta nahikoa da, bai. Honekin bukatutzat jotzen dugu bozketa. Beraz, bederatzi.

[Muchas gracias a usted también. Señora Izurdiaga. No se oye, pero puedo leer sus labios. Sí. Muchas gracias. Y es suficiente, sí. Con esto, damos por concluida la votación. Por lo tanto, nueve].

SR. ANSA ECHEGARAY: Falto yo.

SRA. LLORENTE TRUJILLO: Perdone, perdone, perdone, Presidente, pero no hemos votado.

SR. PRESIDENTE (Sr. Asiain Torres): ¡Ay! *Barkatu*, perdón, perdón, perdón. Faltaba la señora Llorente.

SRA. LLORENTE TRUJILLO: Sí.

SR. PRESIDENTE (Sr. Asiain Torres): La señora Llorente sí. Vale. *Eskerrik asko. Orain bai, ezta?* (MURMULLOS).

SR. ANSA ECHEGARAY: Yo tampoco he votado.

SR. PRESIDENTE (Sr. Asiain Torres): Ay, sí. (RISAS). Ansa *jauna*.

SR. ANSA ECHEGARAY: Sí.

SR. PRESIDENTE (Sr. Asiain Torres): Eskerrik asko. De acuerdo. Aldaketa batzuk izan dira, eta horrexegatik pixka bat nahastu ditut izenak, hemen alde batean daudenak, beste batean daudenekin. Baina orain bai, bukatu du bozketarekin. Beraz, emaitza da bederatzi boto alde eta bost abstentzio. Beraz, onartu da mozioa. Eta honekin batera bukatutzat jotzen dugu bilera.

> *[Muchas gracias. De acuerdo. Ha habido algunos cambios, y por eso he confundido un poco los nombres, los que están en un lado con los que están en otro. Pero ahora sí, ha terminado la votación. Por tanto, el resultado ha sido nueve votos a favor y cinco abstenciones. Por tanto, se aprueba la moción y se da por finalizada la reunión.].*

(Se levanta la sesión a las 16 horas y 23 minutos).